



4 Ezaugarri bateko eta bi ezaugarriko barra-grafikoak interpretatzea eta egitea.



Gogoratu

Barra-grafikoak zenbait kopuru adierazteko erabiltzen dira, alderaketa errazago egiteko.

- 1 Mikelek, Kristinak, Nereak eta Josuk astebetean zenbat izozki jan dituzten adierazi dute. Behatu grafikoari eta erantzun.



Zenbat eta altuagoak izan barrak, orduan eta izozki kopuru handiagoa adierazten dute.

Nork jan du izozki gehien?

_____ jan du izozki gehien.

Nork jan du izozki gutxien?

_____ jan du izozki gutxien.

- 2 Osatu taula, grafikoko datuak kontuan hartuta.


	Mikel	Kristina	Nerea	Josu
Izozki kopurua	4			

Hurrengo astean, guztiek beste hiru izozki jan dituzte. Osatu taula datu horiek erantsita.

	Mikel	Kristina	Nerea	Josu
Izozki kopurua				

- 3 Maitek eta Anek oso gogoko dute bideo-jokoekin jolastea. Grafikoan, astebetean zenbat partida jokatu dituzten adierazi dute. Behatu grafikoari eta osatu.

Barra ilunek Maitek zenbat partida jokatu dituen adierazten dute. Barra argiek Anek zenbat partida jokatu dituen adierazten dute.



Asteko zer egunetan jokatu dute partida gehien?

Maitek _____ jokatu du partida gehien.

Anek _____ jokatu du partida gehien.

- 4 Osatu taula, Maitek eta Anek zenbat partida jokatu duten idatzita, eta erantzun.

Partida kopuruak	al.	ar.	az.	og.	ol.	lr.	ig.
Maite	4						
Ane	4						

Zenbat partida jokatu zituzten asteazkenean?

Maitek _____ partida jokatu zituen asteazkenean.

Anek _____ partida jokatu zituen asteazkenean.

Zenbat partida jokatu zituzten larunbatean?

Maitek _____ partida jokatu zituen larunbatean.

Anek _____ partida jokatu zituen larunbatean.

Zer egunetan jokatu zuten biek partida kopuru bera?

_____ (e)an eta _____ (e)an partida kopuru bera jokatu zuten.

- 5 Aitor, Iker, Iñaki, Miren eta Ainara igeri egitera joaten dira astero. Behatu marrazkiari, bakoitzak astean igerian zenbat ordu ematen duen jakiteko, eta osatu barra-grafikoa.



Nork ematen du igerian ordu gehien? Ainara

_____ ematen du ordu gehien.

Nork ematen du igerian ordu gutxien?

_____ ematen du ordu gutxien.



Tranpadun problema

- 6 Osatu taula aurreko ariketako haur bakoitzak igerian zenbat ordu ematen dituen idatzita.

	Aitor	Iker	Iñaki	Miren	Ainara
Ordu kopurua	6				

Nork ematen dute igerian ordu kopuru bera?

_____ eta _____ ordu kopuru bera ematen dute igerian.

Zein da problema honen tranpa?

Hau da problema honen tranpa: _____



Zenbat eta ordu gehiago eman haurrak igerian, orduan eta barra luzeagoak dagozkie.